

Marroetxe (Marrotxe)



ARTANO IRASTORZA familia

MARROTXE Urtsu-Ereka auzoan dagoen baserria da. Larraitza doan errepidearen goi-aldean kokatzen da eta herrigunetik bost minutuan iristen da oinez. Bi etxebizitzetaz osatua dago eta horietako batean, etxejabe dira artanotarrak, artzaintzari lotuta egondako familia.

Bertako seme zaharrenak, Joan Joxek, Ezkioko *Garaion Behekoa* baserriko Joxpinaxi Irastorza Mendizabal ezagutu zuen, artaldearekin herri horretan zebilela, eta berarekin ezkondu zen 1934ko azaroaren 9an. Egun berean ezkondu ziren Zaldibin anai-arrebak, Joan Joxe eta Joxpamari, eta bi bikoteak Donostiara egin zuten ezkontza bidaiara, anaia bat Loiola auzoan bizi zutelako, eta arratsalderen batean zinera joan omen ziren.

Marrotxen jarri ziren bizitzen, Joan Joxe maiorazkoa izaki, eta zortzi seme-alaba izan zituzten, guztiak etxean jaiok, baina lehenengoa jaiotzean hila, erditze zail baten ondorioz. Zaharretatik gazteenera hauexek: Maria Rosa, Manuel, Joxepi, Milagros, Mari Karmen, Maribi eta Antonio.

Artzaintzatik atera zuen bizimodua familiak eta urte garai bakoitzera ahalik eta ondoen egokituz, baina ondo kostata egin zuen aurrera. Hiru alaba *Txapeletxen* egon ziren neska.

Neguan, Eguberri ondorenetik apirilaren erdi aldera arteko garaia pasatu ohi zuten etxetik kanpo, aurrena Ezkion, gero Aldaban, baina azken urteetan herrian bertan: *Olalden* eta *Agarre-Zaldibin*, etxetik gertu.

Aldabako garaiak gogoratzen ditu Manuel semeak, aitarekin morroi hori hasi zelako sei urte besterik ez zituenean. "Manueltxo" deitzen omen zioten.

Martin Motzane baserrira joaten ziren ardiekin, eta, inguruko barrutiak aprobeztatzearekin batera, bertako ukuilu zein sukalde eta logelak baliagarriak egiten zitzaizkien. Eguraldi kaxkar eta desatsegin ugariarekin ibilitakoak dira, elur urte handiarekin behintzat 1945.ean. Goserik ez zutela pasatzen dio, baina jatekoa egunero berdintsua izaten zela: taloak, babarrunak, gazta, zezina eta txokolate pixka bat. Ama tarteka bisitan etortzen omen zitzairen txerriki, arrautza etabarrekin, eta semeak negar egiten zuen ama joandakoan. Jantziak ere gaur bezalakoak ez, eta askotan bustita ibili behar izaten omen zuten ordu askotan, euri, lokatz edota elur artean.

160ren bat ardi eta denak ezagutzen zituzten, izenik jarri beharrik gabe aita-semeek bazekiten zein ardi ziren aipamen txiki batzuk eginda. Arkumeak San Josetarako jaiota izaten ziren, gazta egiten, berriz, martxo bukaera aldean hasten ziren. Aldaban esnerik ez zuten saltzen, Zaldibin zeudela, aldiz, bai. Arkumeak jaiotzerakoan estu eta larri ibiltzen ziren ardiak ahal zen ondoen zainduz eta arkumea kentzen lagunduz. Antzu ziren ardiak otsailean mendira bidaltzen zituzten ipur gainean añil koloreko seinalearekin. Txakurrak izaten zituzten noski, bizpahiru edo, eta nahiz eta ez oso ondo mantendu beharrezko laguntzat zituzten.

Udan, artaldeak mendira zihoazenean herrigunetik pasatzen ziren dunbak joz, artzaina eta behorren bat dotore bezain adoretu aurrean bidea erakutsiz eta inguruan txakurrien batzuk ardi zaindari hartuta, artanotarrak ere bai.

Apirilaren erdi aldetik urrira bitarte *Intxentxa*ko txabolan egoten ziren, *Pikutako gaina* pasatu eta ezkeraldera. Oraindik pareta zaharrek hori dirautela dio Manuelek. Artaldearekin igoz gero hiru bat ordu behar omen dira, ardirik gabe ordubete bat.

Saroi horretan *Bolaleku* Martin, *Okobioko* Sukia eta *Burrie* artanotarren osaba ere egoten omen ziren.

Artaldeak larrea *Gaineta* aldean zeukatzen, *Alotzako* iturri parean.

Txabolan ez zuten urik eta *Ondarretik* ekartzen zuten marmitetan, txabolatik oinez bost minutura. Egunero joaten ez ibiltzeko ongi aprobeztatzen zuten zeukatena, nahiz eta epela edan beharra izan. Kinkean petrolioa jarrita izaten zuten argia. Kamainan egiten zuten lo, azpian txilarra izaten zuen eta gainean artilez betetako koltxoia. Beheko suan prestatzen zuten otordua, suari ote iharrez ematen zitzaion indarra eta gero egur enborrak sartu. Txabolak eta txerriegiak zotalazko sabaia zuten gainean teilak jarrita, eta oila-tegiak zotalaren gainean garoa, hau bi urtez behin aldatuz gero, ez omen zen txabola barrura euri tantarik ere sartzen.

Gazta egiten zuten mendian eta txabola barruan ontzen zen, eta keak azala ilundu. Txabolak atea hego haizeak jotzen duen aldetik zuenez, kontu handiz ibili behar izaten omen zuten atearrekin, ixtea akordatu behar, bestela gaztak

pitxatu egiten omen ziren-eta. Urtean lauzpabost apaiz eta fraile pasatzen omen ziren txabolatik eta gazta bana eman behar izaten omen zitzairen.

Ardiei ilea mendian zeudela mozten zitzairen auzolanean eta otordu berezia egiten zen egun horretan, oilo zaharra hilda edo.

Gaixotasunei aurre egiteko, gorputzaldi txarrei edo, belarminen ura hartzen omen zuten, enplastoak ere erabiltzen zituzten eta mantzanila hartzeko ere ohitura bazuten, asko zen garaian familiakoek ugari biltzen omen zuten, etxerako eta saltzeko.

Herrira astean bizpahiru aldiz jaisten ziren, igandeetan derigorrezko zuten meza entzutea (semea goizeko mezetara eta aita meza nagusira, gehienetan) eta asteazkenetan Ordiziako ferriara salerosketa egitera.

Pasadizoak

Aita etxera

Joan Joxe, aita, menditik etxera zetorrenean, seme-alabak Bentaberriraino joaten omen ziren aitaren bila, eta aitarekin elkartzean musu ematen ziotela gogoratzen da Mari Karmen eta bizarrarekin aurpegia zulatzen ziela, baina pozik hartzen zutela aita, kukuprakak ekartzen zizkielako.

Txakurra uretara

Artaldearekin Ibasera, Itsasondotik Ordiziara bidean zegoen errota-taberna-biltegiara, iritsi omen ziren behin eta aita-semeak atsedean hartzen ari zirela eta ardiak abaro, ez zaien bada txakurra presara erori, baina Manuel semea konturatu. Apuratuta joan omen zen aitarengana garrasika: "Atte txakur-re udetu eroi da, azkar, itto ingo zaiu-ta!" Aitak: "Lasai motel ez dek ittoko, lasai". Hala, joan omen ziren biak txakurra zegoen tokira eta aitak pixka bat lagunduta uretatik atera omen zuten. Hura poza semearena! Txakurra, Lista izenekoa omen zen eta oso maitea gainera.

Aitonaren oparia

Ama-semeak Ezkiora aitona-amonak bisitatzeraz joan omen ziren, tarteka egiten zuten bezala, Gabiriraino trenez eta handik oinez. Eta kontu-kontari atarian zeudela aitona opari eder bat egin omen zion Manuel bilobari. Zer eta, poltsiko-ko erlojua kate eta guzti! "Poltsiko txikin erloju hue ibiltzea netzat ikaragarrie zen, garai hartan ez baitzen erlojuik" "Urte askotan ibili nun hondatu zan arte" kontatzen du Manuelek.

Erljioaren indarra

Garizuman fraile semolariak etortzen ziren herrira, Arabaolaza eta Agirre zirela gogoratzen du Mari Karmenek eta, indar handiz, batakerua eta besteak infernua aipatuz eliztarrak tente eta serio edukitzen omen zituzten, eta askotan beldurtuta ere bai. Sermoiak elizatik kanpo entzun ahal izateko altabozak jartzen omen ziren gainera. Behin, aita-semeak ardiekin Aisterdi inguruan zebiltzala, zeuden tokitik sermoia nola entzun zuten gogoratzen du Manuelek. Eta ez zeuden herrian bertan-bertan!

"Dotrinan e earrak hartutakoak gea" "Dotrina ustez ikasten nun baino apaizek esaten zianen ahots altun: Jarri zutik, Abarkas!!!! dena ahazten zitzairen". Ezizen horrekin deitzen zion Manueli apaizak.

*Udako egun batean San Migelera joan omen zen Manuel konfesatzeraz, Pazkoazkoa egin gabe zegoelako, eta meza batzuk galdu zituela esan zionean beste egin behar batzuk izan zituelako, fraileak **kondenatu** egin omen zuen.*



Manttoni Garmendia Gurrutxaga, amona (lartzetakoa) eta Joxinaxio Artano Lasa, aitona (Marrotxekoa).



Joan Joxe Artano eta Joxpinaxi Irastortza (aita-amak) ezkontza egunean.



Joan Joxe Artano eta Joxpinaxi Irastortza (aita-amak) bazkari batean.



Gurasoak seme-alabekin: Maria Rosa, aita Joan, Joxepi, ama Joxpinaxi, Karmen, Manuel / Maribi, Antonio eta Milagros.



Zelearko Maria, ama Joxpinaxi, osaba Baixte (aitaren anaia) eta Okobioko Maria Dolores. Atzean alaba Mari Karmen. Sukia kardenalaren ongietorrian Zaldibiko plazan.